

HEZKUNTZA SAILA

EBAZPENA, 2019ko urtarrilaren 10ekoa, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendariarena, 2018-19 ikasturtean zehar atzerriko hizkuntza indartzeko laguntzak emateko dena, heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei.

Aurrekariak:

2018ko irailaren 25eko aginduak (urriaren 3ko, Zbk. 191 EHAA) 2018-19 ikasturtean zehar atzerriko hizkuntza indartzeko laguntzak emateko prozedura eta irizpideak arautu eta ezartzen ditu, heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei zuzenduta.

Eskabide-espedienteak aztertuta, 18 eskabideak jaso dira. Bertan, 23 talde proposatzen dira 1.942,50 eskola-ordu emateko.

2.1. artikulua ezartzen du aurrekontu-hornidura 146.250 eurokoa dela.

2.2. artikulua ezartzen du, gehienez, 40€-ko laguntza emango dela baimendutako talde bakoitzean emandako ordu bakoitzeko. Halaber, 16.2 artikularen arabera, guztira eman beharreko zenbatekoak gainditu egiten badu 2.1 artikuluan ezarritako aurrekontu-hornidura, erakunde onuradun bakoitzari emango zaion zenbatekoa proportzioan egokituko da baimendutako taldeen arabera, harik eta laguntza guztiak moldatu arte aurrekontu-hornidurara.

Baimendutako talde guztien eskola-ordu-kopurua bider 40€, eragiketaren emaitza deialdiaren aurrekontu-hornidura baino gutxiagoa izanez, diru-laguntzaren kopuruaren maximoa esleitzea egokia da, hau da, 40 € ordu bakoitzeko.

Hori guztia dela eta,

EBATZI DUT:

1. artikulua.- I. Eranskinean aipatzen diren Ikastetxeei diru-laguntzak ematea. Ondoa diru-laguntzen zenbatekoak ere adierazita daude.

2. artikulua - Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea, herritar oro jakitun egon dadin.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal zaio Lanbide Heziketako Sailburuordeari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urtarrilaren 10ean

Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaria
RIKARDO LAMADRID INTXAURRAGA



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1F9S-31SB bilagailua erabiltuta, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1F9S-31SB en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

I ERANSKINA
EMANDAKO LAGUNTZAK

IKASTETXEA	IFZ	IKASTETXE KODEA	TALDE KOPURUA	ORDUAK	DIRU-LAGUNTZA EUROTAN
CPES Egibide LH-FP BHIP	G01033547	10248	2	160	6.400,00
CPES C.D.E.A. BHIP	B20676680	12497	1	82	3.280,00
CPES CEBANC BHIP	A20045548	12544	1	82	3.280,00
CPES Elizaran Ikastextea BHIP	G20997714	12566	1	80	3.200,00
CPES Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola BHIP	F20057865	12593	2	180	7.200,00
CPES Urola Garaiko Lanbide Eskola BHIP	G20567327	12742	2	200	8.000,00
CPEIPS Irungo La Salle HLBHIP	R2000194G	13380	1	80	3.200,00
CPES Oteiza Lizeo Politeknikoa BHIP	G20884417	12746	1	82,5	3.300,00
CPES La Salle-Berrozpe BHIP	G20045118	12497	1	80	3.200,00
CPES Almi BHIP	A28814531	14615	2	160	6.400,00
CPES Arangoya BHIP	A48073100	14620	1	100	4.000,00
CPES Es. de Química y Electrónica BHIP	R4800656C	14634	1	82	3.280,00
CPES Salesianos Deusto-M. Aux.-SA BHIP	R4800409G	14664	1	84	3.360,00
CPES Maristak Durango BHIP	R4800505B	14728	1	80	3.200,00
CPES Cruz Roja BHIP	Q2866001G	14633	1	90	3.600,00
CPEIPS San Viator HLBHIP	G95426797	14824	2	160	6.400,00
CPES Harrobia BHIP	F95164273	15305	1	80	3.200,00
CPES Txorierrri S. Coop. Ltda. BHIP	F48106215	14837	1	80	3.200,00
EAE GUZTIRA			23	1.942,50	77.700,00